



2000KO IRAILAREN 28KO
OHIKO OSOKO BILKURA

Lazkaoko Udaletxean, bi milako irailaren hogeita zortzian, iluntzeko zazpitan, Lazkaoko Udal Osoa biltzen da, aurrez honetarako deialdia egin delarik, Felix Urkola Iriarte Alkatearen lehendakaritzapean, ohiko batzarraldia egin asmoz.

Bertaratutako zinegotziak honako hauek dira: Igor Sarriegi Zumarraga, Gorka Lamy Intsausti, Arantxa Zumelaga Agirre, Irantzu Amundarain Irizar, Julio Ibañez Urteaga, Jon Agirre Garmendia eta Urko Irastortza Aldanondo.

Inazio Estensoro Eskisabel, Jose Antonio Dopazo Martin eta Jose Luis Otamendi Romero zinegotziak ez dira bertaratu.

Idazkari lanetan Iñaki Eskisabel Zurutuzak dihardu.

Alkateak esaten du eguneko gai zerrendan akats pare bat daudela, bat "AA.SS.en aldaketa puntuala, abantzea (Gerriko)" jartzen duen lekuan B.E.E.B.ren abantzea behar lukeela; eta bi, aurrekoarekin lotuta, hurrengo puntua ez zela eguneko gai zerrendan sartzekoa ze B.E.E.B.ren aldaketa puntualaren haserako onarpenari buruzko ebazpena alkateari dagokio eta ez osoko bilkurari.

I.- AURREKO AKTA.-

Alkateak bilkurari hasera eman ondoren, bertaratutako onespenera aurkeztzen da 2000ko uztailaren 18an egindako bilkurako akta.

Amundarain zinegotziak (EH) esaten du berak akta hau ez duela jaso eta bere taldekideei ere gauza bera gertatu zaiela.

Idazkariak esaten du bere ustez akta hau uztailean bertan, hau da, oporren aurretik bidalia izan zela.

Zalantza honen aurrean, akta honen onarpena hurrengo bilkurarako uzten da.

II.- ALKATETZAKO EBAZPENEN BERRI EMATEA.-

Ondoren Alkateak azken Osoko Bilkuratik gaur arte emandako Alkatetzako Ebazpenen berri emten du, ebazpen hauen zenbakizko laburpen baten bidez.

Osoko Bilkura jakinaren gainean gelditzen da.

III.- XEHETASUN AZTERKETA BEHIN BETIKOZ ONARTZEA.-

Planeamenduko Arau Subsidiarioetako 16 Hiri Areako -Zubierreka Industrialdea- 5 zbk.dun partzelaren Xehetasun Azterketari 2000ko uztailaren 19ko Alkatetzako Ebazpen bidez eman zitzaion haserako onarpena. Xehetasun Azterketa hau Lazkao Industria Lurra, S.A.k aurkeztu du, Joaquin Zubiria Sautu arkitektoak idatzitakoa da eta Euskal Herriko Arkitektoen Elkargo Ofizialeko 2000ko ekainaren 21eko datako bisatua darama.

...///...

...///...

Xehetasun Azterketa honen helburua 5 zbk.dun partzelarentzat lerrokadura berriak finkatzea da.

Xehetasun Azterketa hau jendaurrean hamabost eguneko denboraldian eduki da eta epe horretan ez da inolako erreklamaziorik aurkeztu.

Hau honela, Osoko Bilkurak, aho batez, Planeamenduko Arau Subsidiarioetako 16 Hiri Areako 5 zbk.dun partzelan -Zubierreka Industrialdean- Xehetasun Azterketa hau behin betikoz onartzea erabakitzen du.

IV.- 1999KO KONTU OROKORRA.-

1999 ekitaldiko Kontu Orokorra Kontuetaarako Batzorde Berezian aztertu eta informatu izan zen 2000ko uztailaren 11an honek egindako bilkuran.

Ondoren jendaurreko erakustaldian jarri zen iragarkia Udaletxeko iragarki oholean eta 2000ko uztailaren 19ko Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratu zelarik. Jendaurrean egon den 15 lanegunetan ez da inolako erreklamaziorik aurkeztu.

Hau honela eta Erakunde Lokaletako Aurrekontuak arautzen dituen otsailaren 26ko 4/1991 Foru Arauaren 63.4 artikulua dioena jarraiki, Osoko Bilkurak, bertaratutako bere partaide guztien aldeko botuekin, 1999 ekitaldiko kontu orokorra onartu egiten du.

Ibañez zinegotziak (EH) etorkizunean kontu orokorraren kopia zinegotzi guztiei bidaltzea eskatzen du.

Alkateak baietz erantzuten dio.

V.- OROBIONEREN OBRA ESLEIPENA.-

Orobione Etxearen Birregoikitze Proiektuaren obrak, prozedura irekia eta lehiaketa publikoaren bidez esleitzeko kontratazio espedientearen prozedura nola dagoen ikusi ondoren.

Horretarako irekitako denboraldian Construcciones Amenabar, S.A.ren izenean dagoen eskeintza bakarra aurkeztu zela kontutan izanda:

Kontratazio Mahaiak esleipena Construcciones Amenabar, S.A.ri egitea proposatzen duela kontutan izanda.

Administrazio Publikoen Kontratuen Legearen 85etik 89ra dihoazten artikulua ikusi ondoren, Osoko Bilkurak, bertaratutako bere partaide guztien adostasunez, honako akordioak hartzen ditu:

Lehen.- Lizitazio egintza ontzat ematea.

Bigarrena.- Orobione Etxearen Birregoikitze Proiektuaren obrak burutzeko lehiaketaren esleipena Construcciones Amenabar, S.A.ri egitea, aurkeztutako eskeintza bakarraren egile bezala, ehun eta hirurogeita hamaika milioi, bostehun eta hemeretzi mila eta berrogeita lau

...///...



...///...

(171.519.044,-) pezetatan, %16ko B.E.Z. barne, lizitazio oinarriarekiko %0ko baja suposatzen duelarik.

Hirugarrena.- Esleitzaileri akordio hau jakinarazten zaionetik 15 egun naturaletako epean behin betiko bermea jarri beharko duela adieraztea, eta

Laugarrena.- Dagokion administrazio kontratua izenpetua izan dadin Alkatea eta Idazkaria behar den zabaltasunez ahalmentzea.

VI.- VICTORIANA VALERAREN ERREKLAMAZIOA.-

Donostiako 3 zbk.dun Lan Arloko Epaitegiak Lazkaoko Udala alderdi demandatu bezala zitatu du Victoriana Valera Dominguezek sustatutako 477/00 zbk.dun epaiketara, esku-bide aitorpenei buruzko, Gizarte Segurantzako Instituto Nazionala, Gizarte Segurantzako Altxortegi Nagusia eta Lazkaoko Udalaren aurkakoa.

Honen aurrean, 2000ko irailaren 21eko alkatetzako ebazpen bidez, udal honen ordezkari eta defentsarako, Francisco Javier Hernaez Manrique abogatu ahalmentzea erabaki zen.

Orain osoko bilkurari honen berri ematen zaio honek alkatetzako erabakia berretsi dezan.

Osoko Bilkurak, bertaratutako bere partaide guztien aldeko botuekin, Donostiako 3 zbk.dun Lan Arloko Epaitegiko 477/00 prozeduran udal honen ordezkari eta defentsarako Francisco Javier Hernaez Manrique abogatu ahalmentzea erabakitzen zueneko alkatetzako ebazpena berrestea erabakitzen du.

VII.- ORDENANTZA FISKALAK.-

Alkateak, datorren urterako ordenantza fiskalen gaiaren inguruan, esaten du Ur Kontsoltzioak % 16 inguruko igoera iragarri duela eta Sasieta Mankomunitateak berriz % 10 inguruko. Gehitzen du, hala ere, eta aurreko urtean esandakoari eutsiz, proposamena kontsumo prezioen indizearen igoeraren arabera igoera aholkatzea izango dela, eskuetan ditugun azken 12 hilabetetako datuen arabera, % 3,7koa. Esaten du baita ere zabor bilketa eta ur-hornidura tasetan bonifikazioa ezartzea planteatzen dela, diru-sarrera txikiak dituztenentzat. Azkenik, esaten du, aipatu beharra dagoela baita ere, trakzio mekanikoko ibilgailuen gaineko zergaren tarifa kuadroa aldatu egin dela foru arau bidez, minimo berriak ezarri eta bestalde turismoen tramoak ere aldatu egin direla, orain artean lau zirenak sei izatera pasatuz; eta hau horrela izanik ibilgailuetan ere, presio fiskala mantetzera joz, turismoetan 1,47 eta gainontzeko ibilgailuetan 1,37 koefizienteak jartzea planteatzen dela.

Irastortza zinegotziak (EH) esaten du ez dagoela tramo guztietan koefiziente bera zertan aplikaturik eta beraiek koefiziente ezberdinak aplikatzea planteatuko luketela.

Alkateak esaten du egin den azterketan turismoen tramo guztiei koefiziente bera aplikatzea ikusten dela justuena.

...///...

...///...

Irastortza zinegotziak esaten du berak adierazi nahi duena koefiziente ezberdinak jartzearen aukera hor dagoela dela.

Ibañez zinegotziak (EH) esaten du bere ustez abiapuntu bezala zera hartu behar dela: lehengo kuadroa zela gaizki zegoena.

Amundarain ziengotziak (EH) esaten du iaz beraien iritziaren aurka onartu zirela ordenantza fiskaletan igoerak eta aurten ez dituztela planteatzen diren igoerak onartuko eta bere horretan uztea planteatzen dutela.

Ibañez zinegotziak esaten du Lazkao Goierrin gehiena ordaintzen duen herria dela eta Gipuzkoa mailan ere nahiko goran dagoela.

Alkateak esaten die iaz esan zutela KPIren pareko igoera planteatuko balitz igoera onartzeko prest egongo liratekela. Bestalde esaten die Beasain eta Ordiziarekin konparatu ezkerro Lazkao behetik dagoela.

Irastortza zinegotziak esaten du iaz igoerak egin egin zirela beraien aurkako botuarekin eta aurten igoera onartuko balukete iazkoa ere onartzen arituko liratekela.

Sarriegi zinegotziak (EA) galdetzen die hau onartzen ez badute ea beraiek zer planteatzen duten.

Ibañez zinegotziak erantzuten dio esanez bere horretan uztea planteatzen dutela.

Irastortza zinegotziak esaten du gaia aztertu eta akordio batetara iristen saiatu beharko liratekela. Gehitzen du bere iritzi pertsonalean ura eta zabor bilketaren tasak jeitsi egin beharko liratekela.

Alkateak esaten du ados dagoela gaia batzordeetan aztertzearekin eta orain onartzen ez bada, datorren plenoan berriro ekartzen saiatuko direla eta onartzen ez bada aurtengoak geldituko direla datorren urterako. Esaten du baita ere, ibilgailuen kasuan bai, foru arauak onartutako tarifa kuadro berria dela eta, oinarri bezala hori aplikatu beharko dela eta oinarri horrekin Lazkaoko Udalak gaur egun daukan koefizientea 1,39a izanik, hortik ateratzen diren tarifak izango direla aplikatuko direnak eta beraz aldaketa suposatuko duela.

Guzti honen ondoren, bozketan jartzen da ordenantza fiskalen aldaketa proposamena. Gai honen onarpenerako udalaren gehiengo osoaren aldeko botuak -6 botu- behar ditu.

Bozketa egiten da. Aldeko botuak 4 dira (EAJ, EA) eta aurkakoak ere 4 (EH) eta ondorioz porposamena ez da onartzen.

VIII.- AA.SS.EN ALDAKETA PUNTUALA, ZUBIERREKA, BEHIN BEHINEKO ONARPENA.-

Lazkaoko Udaleko Osoko Bilkurak, 2000ko maiatzaren 25eko akordio bidez, Roberto Garcia Azpiri eta Ana Ezeiza Agirre arkitektoek idatzitako 16 Hiri Areako Lazkaoko Planeanamenduko Arau Subsidiarioen aldaketa puntuala dokumentua haserako izaeraz onartu zuen. Aldaketa honek zenbait pabilioien egoera kontsolidatu eta erregularizatu, 1 Burutze

...///...



...///...

Unitatean solairuardeen aprobetxamendu handiagoa posibilitatu eta Ezarri, S.A. enpresaren finkapena posibilitatzea ditu helburu.

Dokumentua jendaurrean egon da hilabete bateko denboraldian, iragarkiak 2000ko uztailaren 11 datako "Egunkaria" eta "El Diario Vasco" egunkarietan eta 2000ko uztailaren 17 datako Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratu zirelarik. Epe horretan ez da inolako alegaziorik aurkeztu.

Guzti horren aurrean, Udal Osoko Bilkurak, bertaratutako 8 partaideen aldeko botuarekin, eta beraz, Udalaren legezko gehiengo osoaren aldeko botuz, Arau Subsidiarioen aldaketa puntual honen behin behingoz onartu eta dokumentua Gipuzkoako Foru Aldundira bidaltzea erabakitzen du, honek behin betiko onarpenari buruz ebatzi dezan.

IX.- 1 HIRI AREAKO BARNE-ERALDAKUNTZARAKO BERARIAZKO EGITASMOAREN ALDAKETA PUNTUALAREN ABANTZEAREN ONARPENA.-

Gerriko, S.A.ren proposamenez Lazkaoko Udalak sustatu eta Jon Orue-Etxebarria Iturri abogatuak idatzita, 1 Hiri Areako Lazkaoko Planeamenduko Barne-Eraldakuntzarako Berariazko Egitasmoaren aldaketa puntualaren abantzea dokumentua aurkezten da Osoko Bilkurara bere onarpenerako, Hirigintza, Obra eta Zerbitzuetako Batzordeak informatua izan ondoren.

Aldaketa puntual honen helburua ondorengo hau da:

- Elosgi kaleko 16 zbk.dun egoitzarako eraikineko goiko solairuetan erabileren errejimena salbuespeneko izaeraz handitzea.

Dokumentua jendaurrean egon da 30 eguneko denboraldian, iragarkiak 2000ko martxoaren 21 datako "Egunkaria" eta "El Diario Vasco" egunkarietan eta 2000ko martxoaren 23 datako Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratu zirelarik. Epe horretan ez da inolako iradokizun eta antolaketarako beste alternatibarik aurkeztu.

Guzti horren aurrean, Udal Osoko Bilkurak, bertaratutako bere 8 partaideen aldeko botuarekin, eta beraz, Udalaren legezko gehiengo osoaren aldeko botuz Barne-eraldakuntzarako Berariazko Egitasmoaren aldaketa puntual honen abantzea onartzea erabakitzen du.

X.- GALDERA ETA ERREGUAK.-

Alkateak arkitekto tekniko lanposturako egin den hautaketa prozesua Miren Aldasoro Arozenaren aldeko izendapen proposamena egin dela jakinarazten du.

XI.- BILERAREN AMAIERA.-

Eta eztabaidatzeko beste gairik ez dagoenez, Alkateak bilera amaitutzat jotzen du, gaueko zortziak bost gutxi direnean nik, Idazkariak, guztiaren akta jaso eta ziurtatzen dudalarik.